

EUSKAL MELODIAK

Orain dala urte bi, 1992ko ekainaren 11n hain zuzen, Frantziako Saint-Chamond urian musika-kontzertu berezi bat izan genduan. Haren barri emon neban, bere garaian, *KARMEL* aldizkarian. Bide batez, Julen Urkizak eta biok hara eginiko osteraren kronikatxoa eskeintzen neban, "Melodies Basques" izenburuz eta "Txarako Txoria" izenordez.

Ha izan zan obra haren estreinaldia musikagilearen urian, Euskal Herritik 1.000 km. baino gehiagora.

Ametsetan ere ez neban uste izango Alain Bonnard jaunak eta biok alkarlanean, harek musika eta nik letra, sorturiko lanaren estreinaldira ia Suitzako mugaraino joango nintzanik.

Orain bigarren kronikatxoa eskeintzen deutsut, irakurle, gai beraren inguruan, baina oraingoan "Melodies Basques"en orde "Euskal Melodiak" jarri deusat izenburu.

Prestaketak eta atzera-aurrerak

Honelako emonaldi bakotxa birsortze-lana ere badala esango neuke. Oso-osoan horretan murgildurik jardun genduan aurreko hileetan, ametsez, gure ahaleginak zetan gauzatuko ziran jakin ezinik, baina guztia albait ondoen bideratu nahirik.

Gutun bat jaso neban Saint-Chamond uritik. Sarri-sarri jaso ohi dodan beste batzuen antzekoa. Oso ezagun egiten jatan idazkera. Alain Bonnard musikagile frantziarrarena zan. Laburra, baina ezpata baizen zorrotza. Hango egunkari baten atala zeukan barruan, aurtengo abenduan Saint-Chamond-en bigarenez emongo zirala Euskal Melodiak iragarritz. Kolorez ondo azpimarraturik etorren eta Alain jaunak honako zirikada-txo hau ezarri eban bere kartan: "En diciembre próximo, otra vez las Melodías Vascas en actuación pública. Y en Euskadi ¿cuándo?".



Ni neu eta herriko musikazale jator bat -Julian Ansola-Bizkaiko Foru Aldundian ate joka ibiliak ginan, kontzertu hau Ziortzako udabarriko kontzertuen artean kokatu nahirik. Baina bide horretatik ez genduan baiezkorik jaso eta zer egin ezean gelditu ginan, abagune hobea noiz helduko. Saint-Chamond-eko lau lerroko gutun harek barrua irabiatu eustan eta zer edo

ha egin behar zala eta Julen Urkizagana jo neban. Honek, berak ohi dauanez, kementsu ekin eutson lanari eta lehenengotik egin neban: oraintxe zeozerk urtengo jok.

Mahai hegaleko paper ugarien artetik bat edo beste eskuratu eta, ideiak eta asmoak huts-hutsean baino zirriborroen laguntzaz hobeto adieraztekotan, hasi zan hainbat gauza taiutzen. Lehenengo, zirrimarra edo handi-handikako egitamua. Gero, zertzelada gehiago, itxurazko zerbait gauzatu arte: egitekoak, aurrekontuak, gitxi gorabeherako kalkuluak...

Kolpetxoak hemen, ikutuak han, sakakadtxo bat bestetik... itsasadarreko lokatz artean bazterturiko txalupa tartaila uretara ekarri ahal izan eban. Behin hara ezker, guztia zan errezago: arraunei ekin eta aurrera. Ezinak eta nekeak bazterrean itxiriko ametsak, bihotz ertzean iharturiko gogoak loratu, azkortu egin dira. Paperen artean lehenengo, jende artean gero, urliari eta sandiari laguntza eskatuz, telefono-deiak, batzartxoak eta ibilian-ibilian sorturiko eragozpenei aurre egiteko behar ziran trikimailuak... Hasi orduko, Markina-Xemeingo udalaren babesa genduan; hau oinarri ziburra eta nahitaezkoa zan, kostuak handiak izaten dira honelakoetan eta.

Ia hilabete aurretik taiuturik egoan guztia. Gero, kartela aterra genduan "Lagunaro" Aseguroaren laguntzaz eta azkenez, esku-programa antzera, 16 orrialdeko liburuska bat ahalik eta apainen, argazkiz eta irudiz horniturik. Hau euskara hutsean eta beste bat, ez hain dotore baina folioetan argi, erdaraz.

Hamar-hamabost egun aurretik, propaganda egiten ere ikasi behar izan genduan horretan ohitu barik ginanok. Euskal Herriko prentsa eta irratiei, euskal kulturatik hur-hur ikusten genduzanei batez ere, bialdu geuntsen ekintza honen barri, euren medio indartsuz lau haizetara zabaldu egien. Hainbat lagun eta musikazaleri berarizko deia egin geuntsen. Bildur ginan, artistak hain urrunetik etorrita, kontzertu-lekua erdi huts eta hotz aurkituko ete eben. Baina, zorionez, ez zan halakorik gertatu eta Markinako Karmengo eliza jende musikazalez bete zan.

Komunkabide idatzien artean izan zan hutsunerik. Batek edo ez eban erantzun, eta euskal kulturaren gehientsuen ahalegin-tzen danetarikoa, izan ere, baina *aliquando bonus dormitat Homerus...*

Komunikabideak bete eben euren egitekoa, kultur ekintza hau garaiz iragarri. Harek esker, gehien bat, etorriko zan hain-beste jende Karmenera. Horrekin gure gogoak asebeta zan, baina Saint-Chamond-etik etorritako artistak beste zeozertxo ere nahi eben: kontzertu biharamoneko egunkarien aipamenak, laudorioak, kritikak eta abar. Gauzak ondo egiteko ahalegina sarigarri da, izan ere.

Protagonistak

Alain BONNARD. Musikagile eta zuzendaria. L'Homme-n (Frantzia) jaioa. Ikasketa orokor onak eta musikakoak Saint-Etiennan eta geroago Parisen egin ondoren, famili arrazoiak eraginik, Saint-Chamond urian jarri zan bizitzen 1963an.

20 bat urtean zehar kontzertu ezohizkoak emonez, izen handia lortu eban eta bere inguruan estilo horren zaleak batzea ere bai. Horrela, joera desbardineta berrehun artista baino gehiago konbidatu zituen talde honek. Aldi horretan, bertako irratian astero emoten eban musikari buruzko kronikak musikako saria lortu eban, La Rochelle-n 1984an egin zan irratia libreen jaialdi nazionalan.

Baina azken urteotan batez ere Saint-Chamond uritik kanpo bideratu ditu bere ekintzak.

Musika talde bi sortu zituan: "L'Ensemble Baroque du Forez" eta "Renaissants" eta talde horreetako klabezin-jolea da, Frantzia eta Espainian sarri esku hartuz. Musikagile edo konpositore dan aldetik, zerrenda luzea dauko: 100 musika-lan (Opus) baino gehiago, 1991n egindako "Euskal Melodiak" 111.a izanik. Honen lanak Frantziako 70 uri baino gehiagotan emon izan dira eta, gitxi gorabehera, munduko 30 naziotan.

Askotan olerkarien lanei ezarten deutse musika. Horrela, Frantziako hainbat poetaren lanak musikaz jantziak ditu. Espainiako F.Garcia Lorca-ren poesia batzuk ere bai. Hizkuntza txikiak ere kontutan izan ditu. Honeen artean, lehendik poesia armeniarrekin eginak zituan musika-lan batzuk eta geroago euskal olerkiekin.

Areto-musika edo "música de cámara" deritxon horretara zuzendu dau ia bere produkzio osoa, estilo barnekoian bere sentiberatasuna sakonduz: eta, hain zuzen ere, berezitasun horretan lortu dau bere entzute handia.



Lyvia DAL COL. Kantaria. Loire-koa (Frantzia) dogu Lyvia; 1950ean jaioa.

1968an Saint-Etienneko kontzerbatorioan sartu zan, bata bestearen ondoren Piron andrea eta Pierre Touche irakasleen ardurapean egonik.

1973an "Rameau d'argent" saria irabazi eban Nyons-en.

1974an, Parisko Kontzerbatorio Nazionalean irakasle zan Camille Maurane-rekin ikasi eban. Hurrengo urtean, 1975ean sei sari irabazten ditu: hiru Parisen, bat Saint-Etiennen, Bagneres de Bigorre-n eta beste toki batzuetan.

1975ean Saint-Etinneko jardunaldi lirikoan esku hartzen dau, obra ospetsu batzuetako hainbeste paper liriko interpretatuz...

1978an erlijio-musika kantatzen dau, esaterako: Haendelen El Mesias, Campraren Beatus vir, Viva!diren Gloria, Mozarten Jubilate eta abar.

1984an Saint-Etinneko Copeau teatroaren berrirekitzean parte hartzen dau...Urte berean, Alain Bonnard-ek sorturiko "Les renaissants" taldean kantatzeko konpromezua hartzen dau.

1986ko maiatzean Alain Bonnard-en "Sonnets" (Opus 103) kantatzen dau. Ondorengo urteetan ere ekitaldi ugari izan ditu, guztietatik hiru honeek azpimarratzen ditugularik: 1988an, Alain Bonnard-en opus 107, "Melodías andaluzas" interpreta-tzen dau; 1989an, Alain Bonnard-en opus 109, "Melodías armenias"; eta 1992an, Alain Bonnard-ek Luis Baraiazarraren hiru olerkirekin egindako "Euskal Melodiak", opus 111.

Aitatzekoa da Ziortzan urtero izaten diran kontzertuetan, 1990ean, izan eban partehartzea ere.

Kontzertua bera

Hiru zati izan ditu musika-emonaldi honek: lehenengoan Frantziako poeta onenetarikoen sonetoekin Alain Bonnard-ek egindako lanak interpretatu zituen Alain berak eta Lyvia Dal Col-ek, ha pianoan zala eta hau kantari. José María de Hérédia, Louis Pegaud, Paul Verlaine, Henri de Régnier, Gerard de Neval, Stéphane Mallarmé, Charles Baudelaire eta Félix Arvers dira egileak. Soneto bakoetak, ondoan, euskarazko itzulpena dau, Karmel aldizkariko idazle dan Luis Arostegik kontzertu

honetarako beren-beregi egina. Idazle gatikarrak benetan lan eskergatxa burutu dau, euskarara ere soneto-egituran errima eta guzti itzuli ditu eta. Horretan eskarmentua dauanak badaki hori ez dala txantxetakoa eta edonork egitekoa.

Bigarren zatian Xemein Abesbatzak esku hartu dau Yolanda Loira Mugartegiren zuzendaritzapean. "Ama", "Itxaso" eta "Jeiki-jeiki" kantatu ditu, lehenengoa eta hirugarrena Aita Donostiarenak eta bigarrena L. Urteagarena.

Hirugarren zatia, "Euskal Melodiak", izan da kontzertu honen gailur eta ardatz. Nik egindako hiru olerkirekin Alain Bonnard-ek moldaturiko musikalana da. Entzuleei dagokienez, aiatu dot lehentxoago Markinako karmeldarren eliza bete-bete egin zala. Berrehun lagunetik gora, Bilbotik, Elorriotik, Durangotik, Zornotzatik, Ondarroatik, Etxebarritik eta beste herri batzuetatik etorriak. Saint-Chamondetik ere etorri zan norbait; Alain Bonnard eta honen taldea nora doan hara joaten ahalegintzen danetarikoa. Hain zuzen ere, Euskal Herrian aurkitzen



zan egun haretan bere ogibideko arazoak zirala eta. Beraz, txakada baten hona etorri eta kontzertuan izan zan. Jakina, gehien-gehienak Markina-Xemeingoak ziran.

Ni ez naz nor eritxi kritikorik emoteko, baina jende adi-tuaren ahotik entzun dodanez, musika fina, jantzia, senti-menduz betea da. Maiatzaren 27an Markinako Karmenera hurreratu ziranak une atsegina igaro eben; gaur eguneko bi-zimoduaren zoramenean, hainbat irakasleren garai horretako larriduran lasaigarri eta gozo gertatuko zala uste dot. Entzu-leen jarreraz eta herriaren erantzunaz poz-pozik egozan ar-tista frantziarrak. Alainek berak biharamonean, agur egin au-rretxoan esan ebanez, kantak interpretatu bitartean isiltasun erlijiosoa zan kontzertu-lekuan eta amaitzerakoan txalo za-parrada ozena. Geroko gutun baten honako hau inostan: "Llevamos un recuerdo inolvidable e insuperable de nuestra estancia tan corta y tan intensa a la vez en Markina-Xemein y de su acogida..."



Gu, kultur ekintza honetan sarturik ibili ginanok, hau dala bestea dala, atzeratu egin ginan eta ez genduan lortu ikus-entzunezko dokumentuak eskuratu eta garaiz Saint-Chamond-era bialtzerik. Horregaitik Alain Bonnard jaunak urduri idatzi eustan: "De verdad, estoy inquieto: ¿qué pasa ahí? Tres meses después de nuestra actuación histórica en Markina, no hemos recibido ni una foto, ni una grabación, ni nada. ¿Estais malos todos? ¿Qué pasa? ¿Qué ocurre? ¡No nos queda nada de lo que fue un gran momento...! Esperamos noticias tuyas". Zorionez, dokumentu guztiak edo gehienak bialdu genduzan eta honez-kero eskuratu izango ditu.

Eta besterik ez. Honelako ekintzak herrien kultura jasoten dabenak dira eta udal eta instituzioak han hor hemen izaten diran ekimenak laguntzeko prest agertu beharko leukee, Markina-Xemeingo udala kasu honetan agertu danez.

IZPIRITUAREN DARDARA

Isiltasunaren gozoa!
 harmoniaren hots osoa
 barne-barneko jarroa
 gau-musarengandik jaioa.

Ezin esan nolakoa den
 baina beragan dut atsedean
 izpiritua dardar jarritz,
 lolo zetzana iratzarritz.

Nola eman nik zure berri?
 Poesi-hitzez herriz herri.
 Artea artez adierazi
 musika gabe nola bizi?

XIU-XIU XIXTUKA

Xiu-xiu xixtuka
trena arnasestuka,
mamu beltza bailitzan
pizti txar baten gisan
ikusi zuten trena
infernutik irtena,
izugarria zela
suge baldar bezela...!

Arbasoen tren hura
mitoetan galdu da.
Badator irri xuriz
goi-tximistak isuriz,
baina erritmo finez
bere urruti minez
aurrera triki-traka
sabela txirristaka.

Bidaztien egoitza
etxe luze bortitza
bizkarrezur mugikor
munduz mundu ibilkor
paisaiaren ikerle
menturaren maitale
herriak biltzen elkar
burni-besotan zehar.

Zenbat dakizun, trena!
agurraren auhena...
baita itzultze poza
zugañ ohi dugu goza
aro ona nahiz ekaitz
zu zeurean izukaitz;
zugañ poza xurgatzen
nahiz malkoak txukatzen.

Triki-traka, triki-tra...
ibiltari ausarta;
lehen garaian xixi-fu!
orain hariz katibu.
Zeure erritmo berdintsuz
metal ahots burdintsuz
pozik honuntz hurbilduz
jende guztiak bilduz.

Xiu-xiu xixtuka
trena arnasestuka...

Luis Baraiazarra Txertudi